

-ENA ATZIZKIA MENDEBAL OIKONIMOETAN

Jose Luis LIZUNDIA ASKONDO

Matiena da nire herriko, Abadiñoko elizateko, auzorik populatuena, hiritartuena eta industrialena. Bertan hasi nintzen eta hezi ere, ama hizkuntza propioa izan arren, gaztelaniaz derrigortutako “Escuela de barriada de Matiena”n, 1937an frankistak herriarekin jabetu zirenez mailukadaz desagertu bai zen “Auzo ikastola” euskarazko errotulua. Eta nire ia berrogei urtetako Matienako egonaldiaren oroimenez, otu zait *-ena* atzizki honi buruz euskaltainburuorde, euskaltzainburu eta euskaltzainburu-ohi ezagutu dudan Jean Haritschelharri ongi merezita eskaintzen diogun omenaldi-liburu honetarako idazlana.

Askok uste izan dute *-ena* atzizki hori, oikonimo edo etxe-izenak izendatzeko Ekialdekoak izendatzeko erabili direla batez ere edo, gehienik ere, Gipuzkoako Ekialdean. Ez da horrela Euskal Herriaren mendebaldean, hots, Debarroan eta Bizkaian ere aski hedatua da eta aspalditik. Urietan (hiribilduetan) batez ere, zeren eta elizateetan etxeak “Baserrian” sakabanatuak baitaude, alegia. Horrek ez du esan nahi, elizateetan ere, biztanlegoa ugarituz eta hirigune gisakoak sortuz, *-ena* atzizkidun oikonimorik ez daudenez, alderantziz ugaritzen joan dira, XVIII. mendea geroztik. Gainera, harrigarria badirudi ere, mendebalderen dagoen eskualde euskaldunean, Jaurerriko Uribe merindadean, aurkitzen ditugu gehien : Getxo, Leioa, Mungia, Erandio... Geroago zehaztuko dugu.

Matiena izena aski berandukoa da, María Angeles Larreak, bere *Caminos de Vizcaya en la segunda mitad del siglo XVIII. Apéndice segundo a la historia del Señorío de Vizcaya*. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1974, doktorego tesian, honela dakar, Durangotik Probintziarako errepide berriaren kapituluan :

Establecimiento de barreras. Este hecho tuvo lugar, en la mañana del 24 de Febrero de 1789. La primera junto a la casa de “Adorriaga”, más conocida por “Iturricoa” a la entrada de Eibar, jurisdicción de Ermua. La segunda cerca de la casa de “Mati”, contigua al puente de este nombre, de la anteiglesia de Abadiano.... Por Real Provisión se señaló también qué debiera pagarse por el peaje (bidesaria) Barrera de **Mati**... Igual que en la anterior barrera (Adorriaga, cada cabaallería mayor cuatro maravedís... “El puente de **Matie**.

Zubi zaharrak gerra arte, 1937ko apiril arte iraun zuen, zeinetan bonba batek apurtu zuen eta gero leku berean berria egin, gaur egun ere irauten duenak, inguruko guztientzat **Matieneko** zubia izenarekin ezagutzen dena. Izen honen etimologia dela eta izan zuten beraien arteko eztabaida bat Koldo Mitxelena eta Justo Gararatek. Lehendabizikoak zuen arrazoia, Larrearen tesiak frogatzen duelako, baita ere nola deklinatzen dugun: *Matiena*, nominatiboa; *Matieneko*... eta gentilizioa ere gure aurreko belaunaldiek “*matiendarrak*” esaten bai zuten.

1940-1950 hamarkadetan, alegia, gure hartzaroan, *Matiena* auzogune txiki bat baseri-etxeak inguru guztian sakabanaturik. Kale-etxeak ordea *-ena* atzizkidunak ziren gehienak : **Arotzena** (aroztegia), **Orrospengoena** (jatetxea), **Motxoiena** (jatetxea), **Ostendiena** (jatetxea), **Juakiñena** (denda), **Anjelesena** (denda), **Amerikanuena** (jauregia), **Mintegiena** (Arzubiko zerrategia).

Ezin du lan honen muga barnean, Mendebal euskalki eremuan aurkitzen diren uri edo hiribildu guztien adibideak jarri, bakarrik azalduko ditut Ekialdetik Mendebaldera esanguretsuenak izan daitezkeenak: *Arrasate* eta *Eibar*, Debarroan; *Ermua*, *Elorrio* eta *Durango*, Durangaldean; *Gerrikaitz*, *Lea-Artibaiko* uri txikia, baina adierazkorra; *Larrabetzu*, *Mungia* eta *Plentzia*, Uribe merindadean.

* * *

EIBAR eta ARRASATE

Jakina da Arrasate eta Eibar Gipuzkoako Probintziakoak badira ere, hizkeraz mendebal euskara edo bizkaieradunak direla. Horregatik Juan San Martín euskaltzainak esan eta idatzi zuen, bera gipuzkoarra zela, baina ez giputza, ez baitira gauza bera. *Eibarko Hiri-toponimia*, Onomasticon Vasconiae, 13, Euskaltzaindia, Bilbo, 1995, liburua arakatu dut lehendabizi eta adibide ugari eta argigarriak berrirakurri ditut : Ponte-izen edo deitura adierazten dutenak: **Albizuriena**, **Areitionekoa**, **Arroiabenekoa**, **Balentziaganekoa**, **Balerionekoa**, **Bartolonekoa**, **Filipenekoa**, **Gasparrenengoa**,

Hilarionekoa, **Iragiena**, **Juanestebanekoa**, **Korzalenekoa** (la casa de Corzal), **Lano** (la casa de Lano), **Lopezenekoa**, **Lukastxoenekoa**, Izengoitia edota jatorriko herria adierazten dutenak: **Bergaranekea**, **Amigonekoa** “la casa conocida con el nombre de Amigo” Udal Artxiboa 1900; **Izotzanekea**, **Karketenea**, **Kiputxanekea** o **Giputzana** (hau Toribio Etxeberriaren *Lexiconean*) (San Martinek esaten zuen horrela deitzen ziotela tabernariari Azkarate mendatetik Ekialderakoa zelako, beraz zentzu gentilizio zaharrean), **Kirikixoanekea**, **Koronelena**, **Lutxaena**, **Madrileñuanekeak**, **Milloitxuanekea**, **Nafarrenekea**, **Tartakoneko zapateria** (Tartakua zanetik, kapillia esan biarrian, esaten eban kakapillia, *Lexicón*), **Urkiolanekea** (casa de Urquiola), **Lekianekea**, **Zopanekea**,

Arrasate da gaur Debagoiena deitzen den eskualdearen eta zortzi mendetan eremu bereko artzipretzaguren hiri nagusia eta feria gunea. Sorrerako “carta puebla” delakoan, 1260. urtean, ez du esaten ez Gipuzkoa, ez Bizkaia, ez Araba denik, baizik eta hain zuzen

á todos los pobladores de la puebla que es en Leniz, que avie ante nombre Arrasate, á que nos ponemos nombre Montdragon...

Hiri honetan ere *-ena* oikonimo atzizkidun etxe ugari aurkitu ditu Jose Luis Ormaetxea Lasagak bere *Arrasateko toponimia*, *Onomasticon Vasconiae* 15, Euskaltzaindia, Bilbo, 1996 liburukian. Adibide esanguretsuenak dakarzuguz hona : **Errartena**, **Konkonena**, **Kondeena** (lehenago horrela deitzen zitzaion Monterongo kondearen jauregiari), **Olaena**, **Txortena**, **Alejoena**, **Diegoena**, **Korreoeena** (caserío llamado Correo), **Hipolitoena**, **Lazaroena** (casa llamada de Lazaro), **Maixuena** (casa del Maestro), **Mardoena**, **Pepeena**, **Patzizarrena**, **Perikiñena**, **Tanpokoena**, **Txuanena**, **Bezinoena**, **Oletena** (jabearen aita Oletakoa zelako), **Tomasena**, **Arremena** (hermafrodita baten etxea ote?), **Arruena**, **Erregena**, **Grandena**, **Sopasena**, **Txurisena**, **Buenoena**, ikus daitekeenez, izengoiti ugari eta politak.

DURANGALDEKO LAU URIAK

Erdiaroan Durangoko konderrria Iruñeko erresumakoa, Araba eta Gipuzkoa Gaztelaren erreinuan sartu arte; gero Bizkaia Jaurerriko merindadeetarikoa bat, bere Batzar Nagusiekin 1876arte, lau uri zituen barnean: Durangoko Tabira (egungo Durango udalerria), Ermua, Elorrio eta Otxandio.

Ermuak eta Elorriok beraien toponimia ikerketak eginak dituzte. Lehendabizikoa, Fernando Aranberri Odriozolak burutu zuen: *Ermua-Eitzaga leku-izenak. Geure izanaren barrena*. *Onomasticon Vasconiae* 22,

Euskaltzaindia, Bilbo, 2002. Ermuar ikerle oparo horren ikerketaz baliatzen naiz, *-ena* atzizkidun adibide nagusiak nire lanera ekartzeko. **Anbrosianekoa** (okindegiaren jabea, omen), **Antoliñenekoa** (Antoliñen taberna, probalekuaren aurrean, ezagutu dugu), **Antonatxanekoa** (“Ermuko etxerik zaharrenetariko bat izan dela esan daiteke” dio Aranberrik, dorretxe itxurakoa, zoritxarrez 50-60 inguruan bota zuten), **Balerionekoa** (Restaurante Valerio), **Eskolanekoa**, **Izarrenekoa** (“Villa Izarra”, beraz, itzulpen egokia), **Juankruzenekoa** edo **Ugaldena**, ponte-izena edota deituraren arabera, **Kajeronekoa** **Artamendiñekoa** / **Ardinarrunekoa** (etxe berbera, ofizioaren, deituraren eta izengoitiaren arabera deitua), **Larrosianekoa**, **Leontxikianekoa** edota **Iturriaganekoa**, izengoitia edo deituraren arabera, **Metxerosenekoa**, **Okarizenekoa**, **Paulatxonekoa** edota **Zapateruena**, **Polboranekoa**, botika dagoen etxea, **Zinkonekoa**, **Titiñonekoa**, **Torteronekoa**, **Totoanekoa**, **Txindurrinekoa**, **Txotxolonekoa**, Ermuan, beste herri askotan bezalaxe, oikonimo hauek izengoiti barregarrietan ere oinarritzen dira.

Elorrioko toponimia ikerketa berrikitan argitaratu da : Asier Bidart-Miriam Eriz *Elorrioko toponimia*. Elorrioko Udala Labayru Ikastegia, 2006. Anexionatutako Sanagustinetxebarri elizatearen dermioko baserri auzoetako leku-izenak albo batera utzita, hiribildukon, hots, hirigunekoan egileek bildutakoetan hauek nabarmenduko nituzke nire gaiari lotuak : “Casa denominada **Ariñorena**”; **Bonberuena** (Arriola jauregia deitua, San Balendin Berrio-Otxoaren sortetxea) , **Robledona**, **Muñoana**, **Berrixona**, **Katxarrona** (jatetxe bat), **Biskondiena**, **Sagastizabalena**, **Etxagibelena**, (ikastola zaharra), **Amerikanuena**, **Markoidena**, **Iztegiena** (bilduta **Isteiña**), **Kamiñeruena**, **Kalbona**, **Martinatxuena**, **Erreketena** edo **Seroriena**, **Modetena**, **Olasoena**, **Gerrikabeitiena**, **Belarruena**, **Robusena**, **Lupiolena**, **Ugaldena**, **Kasajarena** edo **Markesena** (Marqués de Casajara-ren jauregia, **Bernardiñoa** (izen horrekin guk geuk ere ezagutu dugu udaletxearen ondoko taberna), **Petraxikiña**, **Xoxuena**. Dena dela ahozko bilketatik egileek emaitza askoz ugariago atera zezaketen, zeren eta guk ere, eskualde berekoak izanda ezagutu ditugu *-ena* atzizkidun gehiago, bi jatetxe oso famatuak garai batean, Arrasaterako irteeran **Tetuanena** eta **Tanjerrena**.

Otxandion eta Durangoko hiribilduetan ez da toponimia ikerketarik, zoritxarrez. Dena dela Durangoko gaur egungo kaletegian oikonimo hauek pasatu dira kale izentzat : **Txatxiena** eta **Txibitena**, biotan irizpena eman nio-larik Udalari. Gehiago ere izan zitezkeen. Tabernetan bakarrik hauek ezagutzen edo ezagutu ditugu : **Txantelena** (**Gaurko** bestalde), **Arkarazoena**, **Txantonesarena**, **Bikandirena**, **Patxikopaulorena**, **Mondragonena** arrasatearra zelako tabernaria), **Sansonena**, **Axpena**, **Itziartarrena** (itziartarra zelako jabea), **Gorrotxena**, **Plateruena**. Aspaldiko dendak ere atzizki honekin ezagutu ditugu **Trapuzarrena**, **Silleruena** (gaur egun tokiz aldatu denean

erdarazko formaz izendatua), **Migelaundiena**, **Lapikona**, **Gaztañatzena**, Berandutu baino lehen, alkate biri aspalditik eskatutako beka deialdi baten bidez hain artxibo aberatsa duen eta gerrosterarte gehiengo osoz euskalduna zen toponimia ikertzen, burutzen eta argitaratzen den. Emaizta ederra eman-go luke lanbide, izengoiti eta beste motetako oikonimoekin.

Gauza bera esango nuke Otxandion, agian gehiago, zeren eta jakingarria da nola Julio Caro Barojak markatzen duen Euskal Herriko mapa bi zatitan: bata Atlantikoko Euskal Herria, populazio sakabanatutakoa baserri-etxeetan eta, bestea, Ebroaldeko Euskal Herria populazio bildutakoa, Araba eta Nafarroa gehienak, izan Lautada edo Errioxa, Sakana edota Erribera baina, baita ere, Bizkaiko herri bi, hain zuzen Otxandio eta Ubide, biok Ebroko isurira dauden bakarrak. Ubiden duela bi mende, hain herri txikia izanda **Lopena**, **Anbena** eta antzerakoak agertzen baziren Otxandio hiribildu handiagoa eta industrialagoa izanda nahi haina aurkituko genituzke. Mitxelenak behin baino gehiagotan agertu zuen/zidan bere harridura Vicinay/Bizinai deitura, izengoiti batetik sortutako bitxitzat jotzen baitzuen. Bera bizi zela ez nekiena zen 1704ko fogerazioan ere bi etxe zirela **Bizinaiena**, bata *Artekalean* eta bestea *Satorkalean*. Bizinaitarrenak dira gaur egun ere irauten duten katea fabrika famatuak, otxandiar jatorriko batek esaten duenez duela bost mende Ameriketa lehendabizi iritsitako hiru karabeletakoak ere Otxandioko katedunak izan omen ziren. Itsasontzi-katea erraldoiak egiten ditu, bai Otxandion bertan eta batez ere Leioako Marinerrian (Lamiako auzoan, hain zuzen) bizinaitarren enpresak. Beraz, *Bizinai* izengoitia bai baina, otxandiarrentzat, fabrika eta jauregia, oikonimoa **Bizinaiena**, **Bizinaitarrena**. Bat batean bildutako oikonimo batzuk: **Marindarrena** (Eskoriatzako Marin elizateko jatorrikoen etxea), **Obena** (agian, mugako Dimako Oba auzokoena), **Txominena** (aspaldiko kafea, Durangon ere bazen 1900ko urte berriz inauguratuko kafea, “Café Siglo XX” jarri arren mundu guztiak **Txominena** deitzen geniona, ugazaba zaharra Txomin Goikolea zelako), **Zarboena** (ibai arrain horren izengoitiduna).

* * *

LEGUTIO/BILLERLEN

Legutio da Euskaltzaindiak, 1979ko bere *Euskal Herriko Udal Izendegiari* jarraiki, Arabako iparraldean eta, Arratia, Durangaldea eta Debagoiena eskualdeeen bidegurutzean dagoen uri edo hiribildua. Oraintsu atera berri da udalerrri honetako hizkeraren ikerketa ederra baina, zoritxarrez, oraindik ez da egin toponimia ikerketarik. Herri honek badu bigarren euskal

izen bat, bertako eta aipatu hiru eskualdeetako euskaldun zaharrok gorde duguna *Billerle*. Bertan bizi da Gidor Bilbao euskaltzain urgazlea eta berak lagundu ahal izan duen apurrean, hauxe azpimarratu nahi nuke: Hiriguneko alde zaharrean izen esanguretsudun kale bi daude : Goikouri eta Bekouri.

Kale berrietan bat aipatzen du honela: “Zabalain esaten dioten auzo berri-an (Nikasionetik/Beko-ostatutik aurrera)”. Ondo ezagutzen dut Nikasiona, ostatu horretan egin baikenuen 1982an, Euskararen Legearen negoziaketa Etxenike, Labaien, Ansola eta bestek. Gidorrek jarraitzen du:

ohikoa da etxeari *-na* bukaerako izenarekin deitzea, baina bat edo gehienez biko izenak direla dirudi “*Serbandona*” Sandurdi auzoan zegoen (Gidor bizi den auzoan)...

* * *

GERRIKAITZ ETA BUSTURIKO BOST URIAK

Gerrikaitz izango da, Jaurerriko uri edo hiribildu bezala, biztanlekoz txikiena, duela mende bat baino gehiago udalerrri ere ez dena, *Arbatze*gi elizatearekin elkartuta Munitibarren Udaletxea duena. 1366an On Tellu konde Bizkaiko Jaunaren aginduz sortua, beti izan da populazio urrikoa. Lekeitio-Durango-Gasteiz-Errioxa-Gaztela Erdiario eta geroago ere bide garrantzitsu bidean eraiki bazen ere, Learen ibar garaian.

1796 urteko fogerazioetan, etxe erroldetan alegia, *-ena* dun etxe hauek agertzen dira: **Antartorrena**, **Barkineroena**, **Elbirena**, **Mari Sarnena**, **Txopere**na, **Gauntzena**, **Marundena**, **Pantaleonekoa**, **Gernikenekoa**, **Mikelenekoa** (1704an **Mikelena**), **Blasenekoa**, **Txominzarrenekoa**, **Agustinenekoa**, **Errandoena** (izen bereko etxea guk geuk ere ezagutu dugu Abadiño-Zelaieta herrigunear, orain dozena bat urte bota dutena; beraz, argi dago *Errando* ponte izena ez bakarrik Nafarroan, Bizkaian ere oso ezaguna zela garai batean), **Matioena**, **Beresiena**. Herritxo bat izateko eta, nolabait kalean, asko dira.

Busturiko merindadeak Gerrikaitz aparte beste lau uri zituen : *Gernika*, *Bermeo*, *Lekeitio* eta *Ondarroa*, zeren eta *Errigoiti* ere, Bizkaiko Jaunak azkenengoz horrela titulatu bazuen ere, lehenagotik zen elizate. Berauetan egingo balitz ikerketa sakon bat, lehengo eta gaur egungo lekukoak bilduta *-ena* oikonimo ugari aurkituko genituzke. Nola deitu bestela itsastarren etxe izenak, marinel nahiz arrantzale, Bermeon, Lekeitio eta Ondarroan? Euskaldunon “*Arbola Santua*” dagoen hiribilduan ere, beste hainbeste.

URIBE MERINDADEA

Bizkaiko eskualderik garrantzitsuen honek ere bost hiribildu ditu: *Bilbo*, *Ugao*, *Larrabetzu*, *Mungia* eta *Plentzia*. Gaur egungo Bilbon ez dugu lekukorik aurkituko baina, oraindik gerra ostean bizi zen Pablo Zamarripa euskaltzain txorierritarrak jakingo zituen. Berak Bilboko Zazpikaleetako, hots, Alde Zaharreko, kaleen euskal izenak argitaratu zituen, bestalde.

Ugao edo *Miraballes* uriaren udalerriko 1796ko fogerazioan hauek atzeman ditugu : **Asensioena**, **Urkizena** (la casa de Urquiza dio), **Juanenekoa**, **Martoretzena**, **Andresena**, **Perozena**, **Errandoena**, kontua izan gaur egun ere herri txikia dela.

Larrabetzuko urte bereko fogerazioan gutxi agertzen dira: **Billanena**, **Mariorena**, **Zarandona** (auzoa). Gaur egun egingo balitz ikerketa sakon bat, emaitza oparoagoa emango luke.

Mungiak XIX. mendearen berandu arte, izen berarekin bi udalerrri zituen : *uria*=villa eta *elizatea*=anteiglesia. Lan honetan urira mugatuko gara. Larrabetzuko egoera bereberean aurkitu gara : **Galanena**, **Angoena**, **Arratiena**, **Martinoena**, **Txipiena**, **Juantxinena**, azken lauak “uriaztoetakoak”.

* * *

Plentzia bere portutxoarekin beti izan da marinel herria, ez arrantzale herria, ordea. Gaur egun ere 3000 biztanle inguru besterik ez ditu, nahiz eta milaka udatiar izan. 1796ko fogerazioan *-ena* atzizkidun etxe ugari agertzen dira eta, orduan gaur baino txikiagoa izango zen: **Kotoena**, **Markesena**, **Mekena**, **Txoriena**, **Kurena** (la casa del cura, agian), **Aguduena**, **Batxibarrena** (Patxi Ibar, agian), **Burnoena**, **Taldena**, **Portalena**, **Atanasiona**, **Kanposena**, **Freskuena**, **Tandoena**, **Migelen**, **Marikoena**, **Gernikena**, **Ederrena**, **Markosena**, **Txatxarreña**, **Txulutena**, **Gaensena**, **Atxonena**, **Kakoena**, **Rosena**, **Anabatistena**, **Manene**, **Urtitxena**, **Baltasarrena**, **Simonena**, **Berriagena** (la casa de Berriaga), **Artiagena** (= la casa de *Artega*, dio).

Jaurerriaren elizateetan ez gara apropos sartu, zeren eta oraintsu arte baserri-etxez populatuak izan baitira eta hirigune txikidunak, ondorioz, ohiko leku-izendunak, oronimo, hidronimo edota fitonimo jatorrikoak. Hala eta guztiz ere, lan hau, Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Donostia eta Barakaldoz hurrengo Euskal Herriko udalerririk populatuarekin, 80.000 biztanletik gora, Uribe merindadeko *Getxo* elizatearekin bukatuko dugu.

-ena atzizkidun oikonimo ugari agertzen dira 1796ko fogerazioan: **Juliena**, **Antontxuena**, **Dendariena**, **Ibarratxuena**, **Tranpena**, **Sarria-Pepelluena**, **Sarria-Abadena**, **Mentxakena** (la casa de Menchaca, dio biltzai-

leak), **Juakinena, Mesapedroena, Gobelena, Malzapatariena, Pitarrena, Santikoena, Prudenziarena, Garaiena, Askane, Perulopetxena, Mantekeruena, Antsoena, Jardingana-Belloena, Galarna, Mantxeena, Mukurena, Benturillena, Amoroena, Andrabiena, Otxoena, Abadesanena, Bustiantxuena, Domingoena, Pertixoena, Simonena, Teresena, Bartoloena, Pikena, Mariena, Martintoena, Floresena, Manuelena-Etxebarri, Gabrielen, Ramosena, Sarrantxena, Perizena, Perizena-Txikerra, Santielexaldena, Ramosena-Freskatxu, Entelladoren, Adamena, Jakobena, Soldadoena, Arteagena (= la de Arteaga, transkribatzen du), Arzubiena, Tatoena, Maloena, Torrena, Sertutxena, Askorriena, Santiena, Lindoena, Lopetxena, Sarriena, Dendariena, Martinikoena, Markotena eta Kasuena. Harrigarria dirudi XVIII. mende bukaeran herri handia izango ez zen Getxon gertatzen zen *-ena* atzizkidun hainbeste etxe-izen egotea. Ikerketa sakonagoa merezi du kasu honek.**

Ikerketa xume honekin argi gelditu dela uste dut Euskal Herriaren mendebaldean *ene -ena* atzizkidun oikonimoen hedadura. Horrek erakusten du, besteak beste, euskal nazioak askok uste izan duten baino ondare amankomunagoa izan duela, Onomastika alorrean, kasu honetan.